

HITLER

Adolf Hitler'ek 12 urte baiño ez ebazan egin agintari, baiña gizaldi osoa odoldu eban. Benetan gorrotagarri biurtu zan.

Austria'ko Braunau'n jaio zan 1889'ko aprillaren 20n. egunean.

Ikasle txarra izan zan beti eta bere amak mizkeriz azi eban.

Gudaldietan burdiñezko kurutzea lortu eban, baiña kabo baiño goragoko maillarik ez eban lortu.

Laster erabagi eban judatarrak zirala errudun Alemania'n jazoten ziran zoritxar guztia izateko.

Langillen alderdi txiki batera sartu zan eta bere arerioak judatarrak, demokrazia eta kapitalismoa ziran. Bera Laterriko Sozialismoaren (nacional socialismo) aldekoa zan.

1923n. urtean parlamentuaren aurka jokatu ebalako bost urterako espetxeratu eben eta zortzi illebe egin ebazan barruan. An idatzi eban "Mein Kampf" edo "neure burrukea" liburua.

Arioen endea ipiñi eban nagusi (euskaldunak be ondoan dirala) Rosenberg'eri jarraituz. Bera ez zan, arioen antzera, aundia ta ulegorria, txikia ta baltzerana baiño. Bardin izan jakon.

Alderdiaren bidez eta lege onez sartu zan erri-ardure-tara eta Kantziller izatera.

Laster sortu ebazan zigor-zelaiak eta alderdi ta sindikato guztiak kendu ebazan. Eta erriko jentea pozik eukan!

1935n. urtean asi zan Alemania armaz jazten eta 1938n. urtean Austria ta Txekoslovakia eskuratatu ebazan eta 1939n. urtean ituna egin eban Estalin'egaz sortaldeko Europa alkar-banatzeko. Urte orretan jarri jakozan aurka Breña Aundia ta Frantze. Eta Polonia'n asi eben gudea. Berak irabazi eban eta gero Dinamarka, Noruega, Belgika, Holanda ta Frantze eskuratu ebazan. 1941n. urtean urreratu zan Rusia eskuratzea eta urte beratan guda aldarrikatu eutson USA'ri.

1943n. urtera arte iñok ez eban uste, España'ko Franco'k be ez, Hitler'ek guda galduko ebanik.

Sei milloi judatar erail ebazan zigor-zelaietan.

Baiña azkena ikusi ebanean, ezkondu egin zan Eba Braun'egaz eta Berlin'eko bere gotor-lekuan berak erail eban bere burua 1945 urteko aprillaren 30n. egunean.

OLAZAR'tar Martin'ek

URRENGO BATZARRAK

Jorrailla (Aprilla)

10' ean, 5' etan, EUSKERAZALEAK,

Illerokoa

26' an: 11' tan, Euskerazaintza

Urterokoa:

10 1/2 1º deia

11' tan 2n. deia

Ekintzak: Martin Olazarr'ek

Kontuak: Egurrolak

Maiatza

8' an, 7' retan: Euskarazaleak

Illerokoa

7 1/2' etan bereizia, 1º deia

8' etan: bereizia, 2n. deia

Gai bakarra: Araudi barria

31' n: EUSKERAZAINZA: bereizia

10 1/2' tan lenengo deia

11' tan bigarren deia

Gai bakarra: Audia barritzatu

Bagilla

12' an, 5' etan, EUSKERAZALEAK

Illerokoa

28' an: 11' tan: Euskerazaintza

Illerokoa

El borrador de los Estatutos estará a disposición
de los Sres. asociados a finales de Abril en las oficinas